



RASMI¹

Hezkuntza jarduera bat pertsonak lehenesteko.

IKASTETXEENDAKO JARRAIBIDEAK

“(…) promes egiten dugu: inor ez da atzean geldituko .(…)”²

¹ Espainiako Errege Akademiaren hiztegioko definizioa: “adorea eta kemena ekintza bati hasiera eta jarraipena emateko”. José María Iribarrenen *Vocabulario Navarro* hiztegian: “kemena, erabakitasuna, irmotasuna, indarra edo nahimena lanerako”

² [Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015eko irailaren 25ean onetsitako Ebazpen honetatik hartua: Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.](#)



RASMIA. Ideia batzuk DBH, OLH, CEP, Batxilergo eta beste etapa batzuetan lantzeko

Material hau iradokitzen diegu irakasleei *Rasmia* dokumentala probetxuz ikusi eta komentatzeko. (*Rasmia* desagertzeaz dagoen gaztelaniazko hitz bat da; euskaraz *kemena du ordain hurbila*). Ziur asko zuek, irakasleok, proposamen hau baino ideia hobeak dituzue, eta, ezbairik gabe, ikasleak hobeki ezagutzen dituzue. Beraz, egokitu dezakezue honako hau. Ziurrenik erosoago arituko zarete zuen ideiekin. Hala bada, aurrera haiekin! Pozik jasoko ditugu zuen iradokizunak. Eskerrik asko aldez aurretik.

Lana gelan egin baino egun batzuk lehenago:

Irakasleak eskatuko die ikasleei etxean galdetzeko *rasmia* hitzak zer esan nahi duen, eta, etxeko inork ez badaki, Espainiako Errege Akademiaren hiztegian edo José María Iribarrenen *Vocabulario Navarro* hiztegian bilatzeko. *Iradokiko die, halaber, euskaraz antzeko esanahia duten hitzak bilatzea.*

Bi iradokizun ditugu gelan lantzeko.

Behar den denbora:

Lehen iradokizunean, proposatzen dugu gutxienez bi saio egitea jarraian (110'). Bigarren iradokizunean, saio bat aski liteke (55'). Irakasleak baloratuko ditu bi iradokizunak, eta, ikasleen ezaugarriak kontuan harturik, erabakiko du egokiena zein den, bi horien eta berak prestatutakoaren artean. Bideoak 8 minutuko iraupena du.

Proposamena:

Bigarren hezkuntzan, derrigorrezkoan zein derrigorrezkoaren ondokoan, irakasgai hauetan: Herritartasuna, Balioak, Erlijioa, Filosofia, Etika, Gizarte Zientziak, Hizkuntza eta Literatura, Ekonomia eta Tutoretza. Modu askotan erabil daiteke material hau. Irakasleak ongi ezagutzen ditu bere irakasgaiak eskaintzen



dituen aukerak, eta ziur gaude badakiela iradokizun hauek zehazten, ikasleek aprobetxamendu onena lor dezaten.

Helburuak:

Gure lurraldeko zenbait gazteren errealitatea ezagutzea.

Gazteak sentibilizatzea, pertsona guztiak baldintzarik gabe hartzeko eta gizarteratzeko beharrari buruz.

Izpiritu kritikoa eta irizpide propioa sustatzea, giza aniztasunari eta migrazioari buruzko informazio alderdikoen aurrean.

Urrats egitea gizarte baketsu eta kohesionatu baterantz, non guztiek bere tokia izanen baitute, ezaugarriak edo jatorria edozein direlarik ere.

Manifestua:

Ona litzateke, hausnartu eta taxuz eztabaidatu ondoren, ikasgela edo talde bakoitzak harreraren eta gizarteratzearen aldeko manifestu bat adostu eta argitaratzea, aurreiritziak indargabetzeko eta argi eta garbi berresteko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren lehen artikulua: gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, eta duintasun eta eskubide berberak dituzte. Ikastetxe bakoitzak erabakiko du zenbat manifestu egin: bat ikasgela bakoitzerako edo bat ikastetxerako. Nolanahi ere, ona litzateke manifestua zabaltzea. Manifestua eginez gero, ziur aski denbora gehiago beharko da.

Orobat, ikastetxe bakoitzak erabakiko du non txertatu proposaturiko lana: bere hezkuntza proiektuan, bere bizikidetza planean, proiektu espezifiko batean edo irakasgai baten edo batzuen programan.

Bereziki lantzen diren balioak:

- Berdintasuna: “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta



kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute”³.

- Giza aniztasunaren aberastasuna.
- Solidaritatea.
- Aurreiritzirik gabeko harrera.
- Jasangarritasuna.
- Konfiantza.
- Konpromisoa.
- Pentsamendu kritiko eta konstruktiboa.
- Kidekotasuna.
- Herritartasun aktiboa.

³ Hemendik hartua: [Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala](#)



LAN EGITEKO LEHEN IRADOKIZUNA: WORLD CAFE.

Kontuan hartu:

Irakasle koordinatzaileak aurretik prestatu behar du jarduera, eta hautatu, halaber, mahaiko arduradunak (anfitrioak) ikasleen artean; orobat, ikasle horiekin hitz egin behar du haien zereginak azaltzeko:

- Hasierako galdera egitea.
- Mahaiko ordena mantentzea.
- Oharrak hartzea, ekarpenak errepikatu gabe.
- Amaieran, mahaiko erantzunak plazaratzea talde osoaren aurrean.

Koordinatzaileak halako zerbait esan dezake hasieran:

Rasmia bideoa ikusiko duzue. *Rasmia* hitza asko erabiltzen zen Nafarroan. Galdetu al diezue horren esanahiaz etxekoei edo ezagunei? (erantzunak) Espainiako Errege Akademiaren arabera, *rasmia* hitzak “adorea eta kemena ekintza bati hasiera eta jarraipena emateko” esan nahi du.

José María Iribarrenen *Vocabulario Navarro* hiztegiaren arabera, Nafarroan *rasmia* hitzak “kemena, erabakitasuna, irmotasuna, indarra edo nahimena lanerako” esan nahi du.

Dokumentala laburra da, eta Nafarroan jaio ez diren bi gazteren bizitza jorratzen da.

Euskaraz, zer hitzek du antzeko esanahia?

Jardueran lau, bost edo sei ikasleko mahaiak osatzen dira, haietan gazteak mintza daitezten. Ikasgelan, lau mahai eratu behar ditugu, eta ikasle kopuru bera jarri bakoitzean. (Irakasleak erabaki dezake hemen proposatzen ez den beste kopuru bateko mahaiak osatzea, kontuan harturik jarduerarako dagoen denbora eta pandemiak eragindakoak)

Mahai bakoitzean galdera bat, orriak eta boligrafoak daude.



Anfitrinoa: Mahai bakoitzean ikasle bat ez da hortik mugituko, eta mahai horretako galdera landuko du soilik. Erantzunak idatziko ditu, errepikatuak izan ezik. Ez du bere iritzia emanen.

Lau anfitrioi daude, eta gainerako ikasleak kopuru bereko lau mahaitan banatzen dira.

Koordinatzaileak esanen die mahai batean esertzeko. (Aldez aurretik antolatu behar da ikasgela edo espazioa). Bakoitza bere taldekideekin eseriko da mahai batean. Dinamika azalduko du, eta eskatuko du arreta jartzeko, bakarrik hamar minutu baitituzte elkarrekin galdera horretaz hausnartzeko. Gero, berak dioenean, beste mahai batera mugituko dira. Isiltasuna eskatuko da. Anfitrioi bakoitzak galdera irakurriko du, eta gero taldekideek erantzunak emanen dituzte. Anfitrioiak erantzunak idatziko ditu.

Hasi eta hamar minutura, koordinatzaileak eskatuko die erantzun gehiago ez emateko, eta adieraziko dien mahaira mugitzeko.

Ekintza errepikatuko da. Lau aldiz guztira.

Hamar minutuko lau blokeak bete ondoren, anfitrioniek, mahaiak mahai ibili diren talde guztiekin egon ondoren, talde osoari azalduko dizkiote emandako erantzun interesgarrienak. Hasieran galdera bat landuko da, gero beste bat, ondoren beste bat eta, amaieran, beste bat. Eskatuko zaie erantzunak ez errepikatzeko, baina bai erantzunen frekuentzia adierazteko.

Erantzun guztiak plazaratu ondoren, koordinatzaileak debatea zuzenduko du; komenigarria litzateke objektu bat erabiltzea hitz egiteko txanda emateko, eta finkatzea hura eskuan duenak soilik hitz egin dezakeela (*mikrofono magikoa* teknika). Koordinatzaileak galdera hau egin dezake hasieran: Zerk eman dizue atentziora jardueran?



MAHAIETAN JARTZEKO IRADOKITZEN DIREN GALDERAK

- 1. mahaia.- Zer premia zituen Lahcenek bere herrian? Zergatik emigratu zuen?
- 2. mahaia.- Zer premia ditu Lahcenek hemen? Eta zer aukera?
- 3. mahaia.- Inacio aspalditxotik dago hemen, eta kontatu digu komunitatearen kide sentitzen dela. Zer esango zenioke gure herrira heldu eta inor ezagutzen ez duen zure adineko gazte bati, kuadrilla, talde, kirol talde, klub, elkarte edo halako batean sartzeko?
- 4. mahaia.- Zer egin dezakezu gure hirian bizi edo gurera heltzen diren gazte guztiek sare sozial on bat eraiki dezaten? Nolako laguntza eman diezaiekezu zure adineko gazteei?



LAN EGITEKO BIGARREN IRADOKIZUNA:

Koordinatzaileak halako zerbait esan dezake hasieran:

Rasmia bideoa ikusiko duzue. *Rasmia* hitza asko erabiltzen zen Nafarroan. Galdetu al diezue horren esanahiaz etxekoei edo ezagunei? (erantzunak) Espainiako Errege Akademiaren arabera, *rasmia* hitzak “adorea eta kemena ekintza bati hasiera eta jarraipena emateko” esan nahi du.

José María Iribarrenen *Vocabulario Navarro* hiztegiaren arabera, Nafarroan *rasmia* hitzak “kemena, erabakitasuna, irmotasuna, indarra edo nahimena lanerako” esan nahi du. **Euskaraz, zer hitzek du antzeko esanahia?**

Dokumentala laburra da, eta Nafarroan jaio ez diren bi gazteren bizitza jorratzen da. Ikusi ondoren, guztion artean komentatuko dugu. Debatea antolatzeko, galdera hauek erabiliko ditugu: (pelikula ikusi aurretik, arbelean idatz ditzakegu, edo banatuko diren paperetan).

GALDERAK

- Zerk premia zuen Lahcen herritik emigratzera?
- Zer premia ditu Lahcenek orain?
- Zer aukera ditu Lahcenek orain?
- Inaciok dio aspaldixotik dagoela Nafarroan, eta zailtasunak dituela oraindik. Zer zailtasun ditu?
- Zer esanen zenioke gure herrira bizitzera datorren gazte bati harrera ona izan dezan?
- Zer egin dezakezu gure herrian bizi edo gurera heltzen diren guztiek sare sozial on bat eraiki dezaten?

8 minutuko dokumentala ikusi ondoren, koordinatzaileak hasiera emanen dio debatai. Helburuak kontuan harturik, iradokitutako galderak erabil ditzakezu, eta beste batzuk planteatu. Saiatuko gara beti gazteek ongi hausnar dezaten. Ez gara ika-mikan ibiliko. Hobeak dira galdera onak erantzun biribilak baino. Kontua



da haiek pentsatzea eta eztabaidatzea, eta, ahal bada, norberak eta taldeak konpromisoak hartzea.